

**2022KO OTSAILAREN 22AN EGINDAKO  
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK**

**Alkate-Lehendakaria**

Gorka Murua Macuso

**Zinegotziak**

Noelia Lataburu Ortiz  
Mikel Iturbe Saizar  
Olaia Nieto Legarra  
Leticia Aristi Oria  
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga  
Jose Ramón Epelde Irizar  
María Cristina Santos San Sebastian  
Marta Castrillo Iturralde

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2022ko otsailaren 22an arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

**1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:**

\*2022-01-25eko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

\*2022-01-27ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

**2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2022KO URTARRILAREN 19TIK 2022KO OTSAILAREN 14RA (2022/12 - 2022/40).**

Alkatetzak 2022ko urtarrilaren 19tik 2022ko otsailaren 14ra bitartean (2022/12-2022/40) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### 3.- IRURAKO UDALA ETA LATS DANTZA TALDEAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONARPENA.

Gorka Alkateak hartu du hitza, batzarra prestatu eta proposamen hau ez denez garaiz iritsi eta informazioa ez denez deialdiarekin batera bidali, mahai gainean geratuko da eta, hurrengo batzarrean bozkatuko da.

### 4.- UEMAKO 2022KO EKITALDIKO KUOTA ONARTZEA.

Gorka Alkateak hartu du hitza, UEMA mankomunitateak 2022. Urterako egin beharreko ekarpena adierazi du, PROPOSAMENA:



“2021eko abenduaren 18an, Idiazabalen egindako Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen Batzar Nagusian, 2022rako kuotak onartu ziren.

Jakingo duzueenez, UEMAREN kuota udalaren biztanle kopuruaren mende dago eta gure datuen arabera zuen udala beherago ageri den biztanle tartean dago. Horrela ez balitz asko eskertuko genizueke hainbat arinen guri jakinaraztea. Udalaren biztanle kopuruaren tartea:

**1501-2000**

Zuen udala UEMAKO kidea izanik, ondoren aipatzen den kuota da 2022an ordaintzea dagokizuen:

**6.928,04 €**

Transferentzia egiteko gure kontu zenbakia honakoa da:

<b>Kutxabank</b>	<b>2095 0611 02 1074007930</b>
<b>Euskadiko kutxa</b>	<b>3035 0118 88 1180900072</b>

Kuotez gain, aurrerantzean kuotok zein modutan ordainduko diren erabaki zen. Zehazki hau da onartu zena:

- 1.- Batzar Nagusiak onartutako urteko kuota lau zatitan banatuta ordainduko da.
- 2.- Kuota zati horiek **hiruhileko bakoitzaren azken eguna baino lehen ordaindu beharko dira.**
- 3.- Mankomunitateko kide diren udalek kuoten ordainketa helbideratu ahal izango dute, eta horretarako idatzi bat aurkeztu beharko dute [administrazioa@uema.eus](mailto:administrazioa@uema.eus) helbidera bidalita. Ordainketa helbideratzen denean karguak aurreko puntuan aipatutako azken egunetan egingo dira. Ordainketa helbideratuta ez duten udalek transferentzi bidez egingo dituzte ordainketak. Jadanik ordainketak helbideratuta dituzten udalek ez dute idatzi berririk aurkeztu beharko.
- 4.- Edozein arrazoiengatik urte bateko kuotak onartu gabe baleude urte horretako hiruhileko bakoitza amaitu baino lehen, udalak ordainketak kontura egiten joango dira, aurreko urteko kuota kontuan izanda, eta kuota berriak onartu ondorengo hurrengo ordainketa egitean erregularizatuko da.

Besterik gabe eta ordainketak esandako eran egingo dituzuelakoan, ondo izan Azpeitian, 2022ko urtarrilaren 18an.

Iraitz Lazkano Garitaonaindia UEMAKO lehendakaria



**BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

## **5.- TOLOSALDEA GARATZENEN 2022KO EKITALDIKO LEHENENGO ORDAINKETA ONARTZEA.**

Gorka Alkateak hartu du hitza, Tolosaldea Garatzenen gestio planaren arabera ekarpena guztira 15.621 €-koa dela adierazten du, orain lehenengo ordainketa 7.810,50 €-koa izango da.

### **BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

## **6.- LOATZO MUSIKA ESKOLAREN 2022KO EKITALDIKO EKARPENA ONARTZEA.**

Gorka Alkateak hartu du hitza, Loatzo Mankomunitateko ekarpenaren berri eman du.

Ana zinegotziak adierazi du Kultura Batzordea (2022-02-15) egin zutela eta bilera horretan Loatzoren egoeraren berri hitz egin zela, eta ea aurten zein ekarpenaren egin behar genuen informaziorik ba ote genuen eta ezezkoa erantzun zenuten.

Gorka Alkateak eta Leticia zinegotziak erantzun dute esanez, momentu horretan ez zutela informazio hori.

Ana zinegotziak jarraitzen du esanez, handik bi egunetara plenoko informazioa jasotzen dutenean urtarrila 21eko eskaera dela ikusten dutela eta, ez dakiela, galdu edo...

Gorka Alkateak adierazi du, beraien eskuetara heldu dela EAJ taldeari iritsi zaion momentu berean, plenoko deialdiarekin batera.

Ana zinegotziak gaineratzen du batzordean hitz egin zela Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza igo egingo zuela %33a, eskaera honetan aplikatuta dago igoera hori edo?

Gorkak dio, informazio hori oraindik ez dakitela, baina borondate hori badagoela beraien aldetik, nahiz eta musika eskolakoek esan %33 hori ez dela errealia, halere, oraindik ez dakigu, bai eragina izango duela udalek egin beharreko ekarpen horretan.

Anak, beraz, ekarpena eskatu dute hori kontutan hartu gabe. Gaineratzen du, abstenitu egingo direla, batzordean tratatu behar zela iruditzen zaielako.

PROPOSAMENAK honela dio: "LOATZO Mankomunitateko Administrazio Batzarrak, 2021ko abenduaren 1ean egin zuen bilkuran, zati xedatzailean horrela dioen erabakia hartu zuela besteak beste :

### **3. 2022eko udal ekarpenak onartzeko proposamena.**

Ikusirik, estatutuen 3. artikuluan xedatzen dela Administrazio batzordearen ahalmena dela Mankomunitatea osatzen duten Udalerriei kuotak ezartzea eta aldatzea.

Ikusirik, Loatzo Udalerriaren Mankomunitateko Estatutuen 11. 3 artikuluan zehazten dela udalerriaren ekarpena egiteko kalkularen metodologia.

Ikusita kontu-hartzaileak 2021eko azaroaren 22an emandako txostena,

Hori guztia ikusita, Administrazio Batzordeak, aho batez, honako AKORDIOAK hartu ditu:

**LEHENA.-** Indarrean dauden Estatutuen araudia aplikatuz kalkulaturako 2022 ekitaldiko Udalen ekarpenak onartzea:

IRURA 57.856,12.-€

**BIGARRENA:** Estatutuen 11.5 artikuluan zehazten dira udal ekarpenak ordaintzeko epeak. Udal ekarpena, lau zatitan ordainduko da, hiru hileko naturala amaitu aurretik.

IRURA	31/03/2022	30/06/2022	30/09/2022	31/12/2022
57.856,12	14.464,03	14.464,03	14.464,03	14.464,03

Ekitaldiko ekarpenen likidazioa Estatutuen 11.6 artikuluan zehazten den moduan, 2023ko lehen hiruhilekoan, 2022ko udal ekarpenen kalkulua errepikatuko da, bere benetako doitzera.

**HIRUGARRENA:** Loatzo udalerrien Mankomunitatea osatzen duten Udalei ebazpen hau jakinaraztea.”

**BOZKETA.- EH BILDU TALDEKO, ALDEKO BOST BOZKA, ETA EAJ/PNV TALDEKO LAU ABSTENTZIO.  
PROPOSAMENA ONARTUA GERATU DA.**

**7.- MOZIOA. EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: “MARTXOAREN 8AREN INGURUKO MOZIOA”.**

**Olaia zinegotziak hartu du hitza eta aurkeztutako mozioaren irakurketa egin du, hone-l a dio idatziak:**

### **2022ko MARTXOAREN 8a DELA-ETA EREDUZKO ADIERAZPENA Berdintasunaren Legea berritzea, berdintasunaren aldeko konpromisoa indartzea**

Urtero bezala, martxoaren 8an, emakumeei historikoki usurpatu zaizkien eskubideak lortzeko egingadako borroka anitzen esanahia gogora ekarri eta aldarrikatu nahi dugu. Borroka horiek, zalantzarikgabe, emakumeen bizitzako hainbat arlotan aurrerapen handiak lortzen lagundu dute, eta emakumeen elkarleen eta mugimendu feministaren ekarpenik gabe ez ziratekeen posible izango. Norbakoen, kolektiboen eta erakundeen arteko elkarlana da, nor bere eragin-eremutik abiatuta, indarrak batuz eta estrategiak partekatuz helburu bera izanik jomuga: emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea. Gaur egun ere, bide luzea dugu egiteko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko, eta, horregatik, ezinbestekoa da emakumeen eguna aldarrikatzen jarraitzea.

Esparru horretan, Eusko Legebiltzarrean Berdintasunerako 4/2005 Legearen Aldaketa onartzeari balioa eman behar zaio, berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka jauzi kualitatiboa egitea ahalbidetuko duen arau-esparrua eraikitzekeo testuinguru egokian sustraituta baitago.

Badakigu gaur egun gure herri eta hirietan berdintasunarekin gero eta sentsibilizazio handiagoa duten herritarrak ditugula, emakumeenganako indarkeriaren aurkako neurriak gero eta gehiago eskatzen dituztenak. Horregatik, lege berri hau aukera bikaina da gizartearen aldarri horri eta erakundeek herritarren aurrean duten konpromisoari erantzungo dion tresna bat emateko.

**Berdintasunerako legearen aldaketa dator, zeinak berdintasun-politikak indartzea ekarriko duen, eta, beraz, gizarte bidezkoago eta berdinzaleago baterantz aurrera garamatzana.**

Hori guztia emakumeen eta gizonen berdintasuna, giza eskubidea izateaz gain, demokrazian sakontzeko eta euskal gizarte kohesionatuagoa, inklusiboagoa eta sozialki eta ekonomikoki jasangarriagoa eraikitzekeo behar estrategikoa dela sinetsita.

Eta gizarte gisa dugun erronka honetan, toki-erakundeok arau-esparru berriak dakarren erronka handiari ahalik eta erantzun onena emateko aukera dugu, betiere herritarrekin eta tokiko elkarte eta mugimendu feministarekin lankidetzan estuan.

Toki entitateek berdintasunarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzearekin duten konpromisoa argia izan da. Azken 15 urteetan, eta 4/2005 Legeari erantzunez, Euskadiko udalak egiturak, aurrekontuak eta sarea sortuz joan dira Berdinsareatik, tokiko komunitateen eta euskal herritar guztien beharrei eta eskaerei erantzuteko. Aldi berean, beharrezkoa da aurrera egiten jarraitzea, hobetzen jarraitzea eta udalerriei, batez ere txikienei, erronka horiei aurre egiteko tresnak ematea.

Honako hauetan sakondu behar dugu: politika publiko guztietako berdintasunaren zeharkakotasunean; emakumeen ahalduntzean; zaintza-lanak ikusarazi, baloratu eta partekatuko dituen gizarte baten eraikuntzan; gizonak berdintasunean inplikatzean; pobreziaren feminizazioa gutxitzean; emakumeen sexu-askatasunaren alde; eta hezkuntzan, emakumeentzako bizitza askea eraikitzekeo balioak aldatzeko tresnarik eraginkorrena den aldetik.

Horregatik, martxoaren 8an, Irurako udalak konpromisoa hartu du berdintasunaren arloko politiken eta zerbitzuen diseinuan eta plangintzan aurrera egiteko, dagozkien/on jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak bultzatzeko eta indartzeko, bai eta arauak, jarraibideak eta gidalerroak egiteko ere, lege honetan eta lege hau garatzeko araudian ezarritakoa beren esku-hartze eremuetara zehazteko eta egokitzeko, eta behar diren baliabideak emateko.

Zehazki, konpromisoa hartu nahi dugu honako erronka hauetan pixkanaka aurrera egiteko:

- Berdintasun-politikak garatzeko **baliabide ekonomikoak, pertsonalak eta teknikoak** indartzea.
- Berdintasunaren aldeko lanean **generoaren eta giza eskubideen** ikuspegia indartzea, bai eta Udaleko arloen arteko koordinazioan ere.
- **Administrazioako langileen berdintasunari buruzko barne-prestakuntza** bultzatzea, oinarriko, derrigorrezko eta etengabeko **prestakuntza-plana progresiboki planifikatuz**.
- **Emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien biktimei arreta emateko sistema** zabaltea, gure eskumenen esparruan, **detekzio goiztiarreko sistemen hobekuntzan** aurrera eginez, **neurri guztien erdigunean biktimen eskubideak eta haien ahalduntzea kokatuz, eta biktimen erreparazio-eskubidearen aitortzea aintzat hartuz**.
- **Ikuspegi intersektionalaren** integrazioan aurrera egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko esku-hartze publiko osoaren ikuspegi inspiratzaile gisa.
- **Herritarren sentsibilizazioan** sakontzea, gizartea kontzientziatzeko eta emakumeak ahalduntzeko kanpaina eta programa instituzionalak daudela bermatuz, bereziki gizonak eta haurrak.
- **Berdintasunaren aldeko eta emakumeak ahalduntzeko neurriak osotasunean** garatzen jarraitzea, mugimendu feministaren parte-hartzea bultzatuz eta haien ekarpenak sartuz.
- **Erakundeen akordioak eta koordinazio-sistemak eta -protokoloak** hobetzea eta aldianaldian eguneratzea.

**Martxoaren 8a dela-eta, herritar orori dei egiten diogu udalerrietan antolatutako mobilizazioetan parte har dezan!**

**BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

**8.- GALDE-ERREGUAK.**

Ez dago.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:15etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**